

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

139n. Zenbakia Epaila (Martia)

1990




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



MUNGIA'KO UDALETXEAN  
ORDULARI BARRIA,  
KANPAI-OTS ZORAGARRIA,  
ORDUEN JOANAREN  
GOMUTAGARRIA.

## NIRE ERESIA



Aron antzo nabil beti abestuten,  
bizitz-oiñazeak geien gozotuten,  
biotz-zaurituen pozkari-ertzia  
atzerri otzean baita eresia.

Aberritik urrin bizi naz txit itun,  
alaitasuna ilda, bizitza jat illun.  
Zergaitik ez dakit baiña makal nago,  
aul daukat gorputza, gogoaraeago.

Abesteko baiña ba-dot naiko indar,  
biotz aul-gaxoan ainbat maitasun-gar,  
Naiz gexorik egon, ba-dot adoria  
gogoz abesteko eresi bizia.

Eresi gorena, nire eresia,  
antzik ez dauana, eder ta mamia;  
eresi goitarra, zeruko lakua,  
maitasun-baratzan biotzak sortua.

Biotza ezin da ziztriñaz alkartu  
uskor ta ilkor dana ezin ondo artu;  
beko pozkariak ezin ditu maite,  
guzur ta okerrak ezin bera bete.

Geienak dautsoe abesten lurrari,  
neska gaztearen gorputz lirañari;  
askok oianari, baratz-loleari;  
ortze-ixartxoari ta itxas-urdiñari.

Ezin izan nire biotz-maitasun, gai,  
zerbait andiago ba-dan abestu nai;  
euren abeslari izan nai ez leuke,  
andi ta ezilkor-ikurrik ez dauke.

Nik Aberriari dautsat abestuten,  
berari bakarrik bertsoak landuten;  
Aberria baita maitasun-kabia,  
gexo dagonentzat osakai-ertzia.

Izarra da biotz-neke-illunpetan,  
eguzki beroa negute otzetan;  
itun-aldietan pozkari gozoa  
bizitza-neketan adizkide zintzoa.

Berari abesten dautsat begirunez,  
maite dodalako gogoz ta naikunez;  
beretzako dira bertso samurrenak,  
beretzako amets gozo ta leunenak.

Berari abestu! Arazo ertzia!  
Bere morroi izan. Ori nire naia!  
Lurrean ez baita ezer gozoagorik,  
ezer bera baxen eder-pozgarririk.

Berari abesten eresi legunak,  
nai dodaz igaro bizitza-egunak;  
onela damotsat seme-maitasuna,  
orok zor dautsagun-zintasuna.

Maite-maite zaitut, Aberri on ori,  
zutzat dot osorik nire maitasuna  
biotz osoa zuk zeugandu ba-zeustan  
maitetsasunezko amets gozoetan.

Zugandik ain urrin bizi naz luzaro,  
gau ta egun zutaz pentsatzen gozaro;  
nire biotz-muñan amets gelgarriak  
sortu erazten dauz zukanako oroiak.

Pozgarri jat zure irudi kutuna,  
berak argitzen daust barruko illuna;  
eta jarrai alai beingoan gogoa  
orobat txukatu barrengo malkoa.

Zu maitatuteko nazan biotz duna,  
ama samurra lez semetxo kutuna.  
Zu zaintzeko barriz bildurrik bakoa,  
euzko guztiak lez leoi antzekoa.

Nire biotzak gaur iges dagist azkar,  
zure ondorantza aize-legun-zear;  
maitetasunezko egotan bilduta  
zugana doa gaur ez titan urtuta.

Zuretzat beiz nire pil-pil samurrenak,  
zuretzat gabeko ametsik leunenak;  
zuretzat osorik nire maitasuna,  
zuretzat betiro eresi kutuna.

## URA ETA URIAK

### IÑOZ EZ

Aspaldiko illeetan, negukoak be barruan dirala, izan dogun lako legortarik ez dala iñoz ezagutu diñoskue gure zarrak.

Ori orrelan dala ikusteko ain zarrak ez garanok naikoa dogu Legutiano'n eta Landa-inguruan dan uretzara begiratzea: Ainbeste urtetan beterik ikusi dogun zingira-antzekoa, orain lurra agirian agiri jaku.

Egia esan noizean bein egiten dau euria eta soloetan be artu dira uzta batzuk, baiña uretzetarako bear dan beste ez dau egiten eta ortik dator arazoa.

### ZERGAITIK?

Jakitunak eta jakinguraz dagozenak itaun ori egiten dabe bein eta barriro: Zergaitik ainbesteko le-gortea edo ziketea gure Euskalerrian, inguruko errietan iñoz baiño eurite aundiagoak dirala? Gure basoetako zugatzak urritu diralako ete da? Gure lantegiak ingurua kutsatu dabelako ete da? Ala be-rez orrelantxe etorri bearreko gauzea eta gizonen ikuturik orretan ez dala?

### ETXEGINTZA

Gauza bat bai ikusten dogu geure begien aurrean. Gure Euskalerraren alderdi ezo onetan biztan-letza beti bizi izan da banakatuta, etxe-moltso ikaragarriak sortu barik, eta aspaldiko urteetan eus-kaldunak Bilbo-inguruan uri aundi bat egin dabe. Olako uriak izan ez ba'litzaz, aurten be ez zan izango ezelako arazo larririk, banakako biztanletza dauken erriak ura naikoa dabelako.

Etxegintza oker orrek bai izan dauala errua arazo onetan, baiña bear ba'da ez egoan beste urtenbide egokirik.

### ESKATU

Urreratu dira eleizetara euskaldun batzuk arrentzak egiteko eskatuz, baiña eskari orrek ez dau izan lenagoko urteetan izaten eban oiartzunik.

Gotzaindegitik etorri da arrentza-antzeko bat egiteko era bat, eskariak baiño geiago da ura alperrik galdu barik jokatzeko eleiztarrai egiten jaken eskaria. Otoitza be bai, zalantza barik.

Andoni Deunaren egunean, urterrillean, Urkiola'n izan giñan eta an be egin ziran uraren edo euria-ren eskari batzuk.

Arrentza egingo zala-edo entzunda, an ikusi genduzan telebistako langilleak, baiña ez eben lan aun-dirik izan: Abadeak ez eben urten kalerik kale kurutzea ta ikurrak aurrean dirala eta Andoni Deuna-ren irudiari laguntzen. Ori orrelan ez izatea ez jaken ondo etorriko telebistakoai. Orreik ikusten di-ran gauzak nai izaten dabez.

### LORTU

Beste bide bat artuko dabela gazteiztarrak entzun zan: Berezko euririk ez datorren ezkerro, jakitunen asmakizunak onartu, geuk euria egin eta lurrera isuri. Ez da entzun asmo orrek ondoren egokirik izan dauanik. Karua dala be ba-diño.

### ITXAROPENAZ

Aldirik txarrena igaro dogula eta laster izango dala ura ugari uste dogu. Eta orrelan izan daitela, gure uri aundiak egarriz bizi ez daitez.

Eta aintxiñako esaldia dan lez, "daukanak ez daukanari" ura emonda, konpondu dagiguzan gure ara-zoak.

## PUJANA'tar BASILIO

PUJANA'tar Basilio bertsolari eta adiskideari omenaldiak egin dautsoez eta jentetza aundien giroan egin be.

Basilio, biotz-biguna dan ezkerro, gutiz samurtuta ikusi dogu, eta bere antzera ALBERDI bere adiskide ta bertsolarikidea be.

Zorionak gure aldizkari onen bidez bertsolari bioi, Euskalerrriaren alde egin daben Ian txalogarriagaitik.

\*\*\*

### ALDI LARRIETAN

Pujana'tar Basilio'ren lana aldi larrietan egiña izan zala diño, guda-ostean eta euskeraz berba egitea bera be txartzat arzen zan aldietan, bear ba'da, Baserri bertsolaria antzeko lana egiten ibilli zan aldian.

Bertsolari onek Baserri'gaz dauan zerikusia, edo obeto esateko, aldi bardiñean lana egin izatea aztertua izango zan omenaldian, baiña ez dogu izan olako ekiñaldietan izateko erarik.

### ZORRA

Basilio'k berak aitatu dau omenaldi au egin dautsolako erriari dautson zorra zelan ordainduko ete dauan eta erantzuna be antzekoa izan da: Erriak dautsola ordaintzeko erreza ez dan zorra.

Orra or alde bietatik esker ona agertzeko aukerea ta eginbearra, orra or alkarlaguntzarako giro egokia.

### BERTSO-PAPELAK

*Moba bi bertsolarl.*

Aldi illun areitan Pujana'ren lana bertso-papelak ateratea be izan ei zan. Eta Ian egokia da, agiriko bertsolaritzarik ezin eratu zan aldian erdi-isillekoak diran bertsoak zabaltzea. Gogoan daukak nik ume-aroan olako papelak artu eta abestu egiten genduzana, baiña ez zan jakiten nondik etorria eta nok egiña zan. Bear ba'da Pujana izango zan egille. Bizkai gutzia olako papelez bete ei eban.

### AUNDIKIRO

Pujana eta Alberdi'ri egin jakezan omenaldiak bertsolarien aldetik beintzat, aundikiro egiñak izan dira, olako gizon batek bear dauan maillan.

Berrogei ta amabi bertsolarik artu ei eben parte eta euren artean Pujana'ren billoba bi.

Zorionik beroena ba, Basilio adiskideari eta laster izango dogula barrero alkar ikusteko aukerea uste dot.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

## 1989'ko EKINTZAK

Gabon bazkide maíteok:

Oikoa danez, ona emen erakunde onek igaz bururiko ekíntzen azalpena:

### **IKASTAROA EUSKERAZ**

Urtero egiten dogun lez, igaz be euskera-irakas-kintzeari jarraitu geutsan. Ikasle asko izan ez arren, badirudi, azken aldiotan ízaniko beerakadea zeozer eten egin dala. Artutako barrien arauz, leku guztietan ikasleen kopurua beeratu da, euskaltzaletasuna galduta, edo irakaste-leku geiegi zabaldu dalako.

Aurten be, udako ikastaroa, ezín izan dogu abia-dan ipíñí, izen-emotea oso urria izan dalako.

### **EUSKAL ASTEA BIZKAIERAZ**

Eskolapiotarren ikastetxean, Euskal astea atondu genduan, Bilbao'ko udalaren babespean. Ona emen dagokíozan gora-beerak eta gai-emoilleen izenak:

Azilla'ren 20'gnean. Bertsogintza. Muníategi'tar Abel'ek.

Azilla'ren 21'gnean. Euskerazko iztegiak. Onain-dia'tar Santi'k.

Azilla'ren 22'gnean. Basetxeak Euskalerrian. Zubíkarai'tar Augustiñ'ek.

Azilla'ren 23'gnean. Errotak non eta zelakoak. Astu'tar Alberto'k.

Azilla'ren 24'gnean. Antxiñako euskaldunen egun andiak. Olazar'tar Martiñ'ek.

Itzaldiak guztiz zudugarriak izan ziran, bear dan beste lagun etorri ez arren. Entzuleek ez eben damurik ízan etorri izategaitik, eta poz-pozik urten ziran.

### **IPUIN-SARIKETEAK**

Igaz be atondu genduan oiko leiaketa au Gabonetan, ia idazleen kopuruak gora egiten dauan, idazle barriak erakarrik. Idazlanen aurkezpena zeozer atzeratu zan, eta augaitik, sari-banaketea aren baten atzeratu bear izan dogu. Edozelan be, Epailla'ko "ZER"en zenbakian epaia jakin-era zoko dogu.

Sariak, beste aurrekoetan lez, onek izango dira: 1'goa 40.000, 2'gna 30.000, 3'gna 20.000, eta 4'gna 10.000 laurlekokoa.

### **EGUTEGIA EUSKERAZ**

Aurtengo, 1990'ko egutegia, atondu genduan ígaz, oiko lankideen laguntzaz, eta Olazar'tar Mar-

tiñ'en zuzendaritzapean. Izan be, ekintza onek pozez beteten gaitu, leku guztietatik eskaera asko dogula egiztatzean batez be.

Bízkaí'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzeari esker, egutegi ori argítaratzeko gai izan gara, eta laguntza orrek uts ez egitekotan, aalegínduko gara gure egutegía urtero agertu daiten.

### **"ZER" ALDIZKARIA**

Ona emen poztasunez bete gaituan beste ekíntza bat. Euzkadi'ko erakundeek gure bizkaíerea aztu edo zapaldu dabenean, gure euskeraz agertzen dan aldizkari bakarra illero-illero agertu da igaz be. Zerbaitek, gure laguntza ta aalegin guztiak merezi ba'dauz, aldizkari au da ezpaíbarik. Jarraitu dagigun ba, bazkideen eta idazleen laguntzaz illeroko au argítaraten, ia noiz Bizkaí'ko seme jatorrak jagiten diran euren zapal dutako euskerearen alde.

Gure aldetik ez dautsagu ukatuko iñongo aaleginik aldizkari oneri, eta Euzkadi'ko erakundeek bizkaíerea zapaldu ta ezereztu dagien bitartean, gure etengabeko salakuntza agiria aldarrikatzen jarraituko dogu, bizkaítarren gogoen ateetan jo ta jo, ia zorakeri au noiz amaitzen dan.

### **LAGUNTZAK**

Ona emen bearrezkoak diran tresnak. Bata diruz, gure asmoak egi biurtzeko ezinbestekoa da-ta. Erakunde oneri buruz zuen burua arro ikusí gura ba'dozue, ez egiozue ukatu urteko saria. Aurtengoa, igazkoa lez, 1.000 laurlekokoa izango da.

Ezin dagikegu isildu, baiña, Bizkaí'ko Aldundiaren diru-laguntza, eta zati andi batez "EUSKERAZALEAK"ek igaz egiñikoa, berari zor dautsagu. Bioakio beraz, gur eskeronaren autorpena.

Baiña diru-laguntza bearrezkoa ba'da, zuen adore-laguntza areago da baita be. Eta betekizun au burutzeko, "ZER" gure aldízkaíaren orriak gerturik dozuez zuen idazlanen laguntza artzeko. Astindu zuen alperkeria ta ekin lanari.

Amar-urte barria asi da, eta guraririk onenak opa dautsueguz osasun eta euskaltasun betean.

Besterík ez.

ZUBIRI'tar IÑAKI

## ERRIETAN

# ORDULARIA

Goiz baten zan. Etxetik urten eta beste barik, ordulari-kanpai ots zoli ta gozo bat entzun neban abesti antzera. Belarria adi adi, jarri jatan entzuten. Oi ze zarata piña daukan kanpai orren otsak!! Egiz, ordua atsegiñez entzun eben nire belarriak. Baiña ez nekien zer zan ta nundik etorren ordulari ots ain lillugarria...


Pausu batzuk aurrera ta plazatik ikusi neban Udal-etxeko ordulari barria. Alai eta bikain egoan orma zabalean, bakaulkian jarrita dagoan gizonaren antzera kaleetara begira. Zorionak ordularia ta ordu onean etorria! Zure arpegiak, zure markak, zure soiñuak guztioi zerbait esaten deusku.

Izan bere, zure erria eder-zale, argi-zale, soiñu-zale da.

Nork ez ditu maite San Antontxu ostein agertzen diran zelaietako berdetasuna, sasetako bizi barriaren ernerea, sagastietako sagarraren bizitasuna, eguzki berberaren argitasun barria...? Danok datoz batera alkartasun anaikorrean zure kanpai-otsak edertasun ori osotzen dabela. Izadiaren arpegi ori zoragarria dan legez, zure arpegi ta soiñu-otsa be belarrientzat ozen ta zolia da.

Egunaren barria emoten deusku gogorkeri barik, naita bizitzako urteetan, aurrera, goazela adierazi. Bere abilitadea dauka soiñu eder baten bidez gizona, poz-pozik, egunik egunera, aurrera, eroateko. Berezkoa da, izan bere, gizonaren biotzean ederraren eder miña, ta orretan, ordulari barria, egiz, goragarria da.

Gure bizia bai ta be, argizale da. Illuna berez da bildurgarria, bizia zapaltzen dauan piztia. Azeri ta otsoak, gabaz, datoz mendi goietatik arboladietan bera oillotege ta base-ri inguruetara, euren gosea kentzen. Arrapariak be, gabaz, dabiltzaz sarritan. Lurrak



argizale dira euri ederren ondoren; argiak dakar ba bizia. Ordularia, zure arpegi be, olantxe, agertzen da argi ta leial.

Irugarren gauz eder bat zure soiñua da. Euskalduna, geien bat, entzumen onekoa da. Gure mendi, zelai ta itxasoak kantariak doguz, ta or, sortzen dira emengo giza-seme ta alaben belarri on ta abots pitxiak. Ortik datoz gure abes-batzak, ortik gure erri kantariak... soiñuaren ederra nun dagon, arin, konturatzen da euskal belarria. Orain, erria kantari ta ordularia kantari, biak batera, datoz soiñu edertasunean.

∩∩∩∩∩∩∩∩∩∩

Ordulariaren ots zidarrezko dirudi urdiñean zear; aize dardaratiak pozezko soñuagaz belarrian dardar.

Erriaren erdian orma nausian dago adierazlea; unerik une dabil

lur ta izarrei begira aldien neurlea.

Zuzen ta leiala da ekaitz aldietan lez eguzki argitan; jakitunen argia burdin puntan daroa soñu gozoetan.

PAULIN

## BASERRIARI BEGIRAKADA BAT

Jean Baptist Ellissanburu, saratarra zan. Lapurdi'ko Sasan jaioa, 1828 urtean jaio eta 1891'n illa.

Berrogei ta bi urtearte, gudaritzan euki eban bere ogi bidea. Teniente izatera eldu zan. Gero bake epaikari bere jaioterrian.

Bereak díra olerki samur, gozo eta ezagun oneik:

Ikusten duzu goizean,  
argia asten danean,  
menditxo baten gaiñean,  
etxe txikitxo aintzín zuri bat,  
lau aitz andien artean,  
iturritxo bat aldean,  
txakur zuri bat atean?  
Antxe bizí naíz ní bakean.

Naiz ez den gaztelua,  
maite dut ník sorlekua,  
aiten aítak autatua,  
etxetik kanpo zait iduritzen  
nonbait naizela galdua,  
nola an naí naiz sortua,  
an dut utziko mundua,  
galtzen ez ba dut zentzua.

Bereak díra olerki samur, gozo eta ezagun oneik.

Baiña ala ete da baserria?

Aín gozo, atsegín eta zuri ete da baserri bizitza?

Eta "baserritarrak oílloa azten, erritarra jaten" esaerak, ez al dau sakonetik azaletik dirudian baiño zertxobaít geiágo esaten?

Eta "baserritarrak lau golpetatik iru alperrik eta laugarrena erdía beiñik bein besteentzat"? Ez al da zorion-zorionsu ez dan bizitza baten salaketa?

Eta "basoko egurra gaur neurea, bíar edozeiñena"?

Eta "baserritarra tírrí tarra, jo popan eta errekarra" guk ondarrutarrok esaten dogunak? "baserritarra tirri tarra, jan bedarre, bota uzkarra lekeitiarrak.

Aztertu daigun, azal-azaletik, gaia bera zabalzabala dalako, baserriaren izatea.

Ziurretík gai au beste edozeiñek egokíago erabí-líko eban. Danok dakizue itxastarra naizela, kresal usaíñez beteta bizí naizela. Baiña ala eskatu eusten

eta... Nik borondatea ipini dot, zuek, mesedez, arreta eta danon artean aztertu daigun euskal etxeen etxea: baserria.

Miren Etxezarreta'k, bere "Euskal baserriaren oraina eta geroa" liburuan díño, "baserriarí buruz asko itz egin, baiña gitxi jakin". Ori dala giroa eta ori dala baita egía.

Nire gaurko ekitaldi onetan, al danik argien eta zeatzen baserrietako gorabera, bertako gertaera eta jakingarri batzuk agertu gura neukez. Geienak líburuetan írakurri eta jaso-ala batuak.

Líburuetan, gítxí díra olerkariak baserriak goratzeko tarte edo uneren bat aukeratu eta goratu ez dabeník.

Antzerkietara ba goaz, batzuk baserritarra aukeratu izan dabe euren lanetarako irudigíletatzat, bere kontura alako pertsonai arraro, atzeratu edo bere mundutík urten naí ez daben baten antzeratzat.

Baiña ezagutu izan dot zentzu aundiko gizon bat esaten ekiana: Eskolak kalean dagozala, baiña Unibersidadea an goían, baserrian.

Beste batzuk ez díra batera trakeztasuna, erri euskeraren iturria, erri euskeraren biotza, baserrian dago ala esatean. Eta bere trebetasuna arpegíra jaurti izan dautsenean ez dautse jaurtí jator dan bere izkeragaitík, berbetagait; orretan berak daukan gaítasunik ez daukenak izan diralako ain zuzen be bere ixekalariak. Bigarren izkuntza erabilten sartzen dauzan biurrikeriagaitik baiño.

Eta ez díra konturatu orrela jokatu izan dabenean, aín zuzen be aberriaren aurkako pekatu egin dabeník baserria dalako etniaren izatea, euskal erri sentimenaren kabia eta euskal pentsakeraren bízia.

### **Baserria ala basetxea?**

Ba dírudi jatorrago ízango litzakela **baserri** baso-erri edo inguruarentzat erabiltea, eta **basetxe** basoko-etxe, gaur baserri deitzen dogunarentzat erabiltea.

Onetaz egon zan aldí bat **basetxe** eta **baserri** itzak bereíztu egin bear zirala esaten zanekoa, **baserri** inguruarí ítxita edo auzoarí ítxita eta **basetxe** etxe utsari.

Edozetara be erriak baserri berbagun batzen dauz eta ba dírudi ala jarraitzea komeniko dala.

Izan be etxe uts dan baserririk gertaten ete da?

# EUSKAL-ASTEIA

Baserria deitzen dogun etxeak berea dau lurralde ingurua be. Ez ori bakarrik. Baserri etxeak berea dau, eleizako sepultura au da, etxearen luzapentzat artzen da. Kontu egín eleizetan sepulturak zabaldu edo egin ziranean, eleizak amaitu baiño len egin zírala toki askotan eleiza barrutako sepulturen banaketak, eta etxeei eskiñiak izan zirala. Eleizak ez eben euren barruan iltoki zabal eta orokor bat egin, il-ala bertan sartzen joateko, geienetan lekuko edo inguruko etxeak aiña illobi baiño.

Ondarroako parrokian, esateko, 180 illobí egin eta izenak ikustea baiño ezdago etxeen izenak ipíni zirala, etxeen deiturak, etxeak eleizeagaz lotuta itxiaz. Ala, zerrendako lenengo ogeirak saillean esateko, eukezan izenak: Galletekoa, Andonegikoa, Goxengua, Likoakoa, Munabekoa, Elorriagakoa, Torrebarrikoa, Agírre-Iramengoa, Galdonakoa, Galantxotekoa, Plazakoa, Txurrukakoa, Ansolakoa, Sakristaukoa, Urrumagakoa, Asterrika, Baraiku, Ormaetxea, Lauzurikakoa, Erleegikoa...

Ez zíran familietako izen edo abizenak, etxeetako deiturak baiño.

Markiñako illerria, kanposantua, monumentu lez etsi zanean gogoratzen da Xemein eta Markina 1.355 urtetik alkarregaz egiten zituela euren eortzeak, obíratzeak, eta eleizán egozala etxe bakoitzaren zatíak, bakoitza bere zenbakíagaz, eleizaren azken iru atzeko zatíetan banatuta.

Eta geroago gogoratzen da: "La sepultura dentro del templo era propiedad privada de los solares, que atendían su mantenimiento". Orrela, baserria, etxea saltzen ba zan, illobía, sepultura be, etxeagaz geratzen zan, ez len bizi ziranekez, bertan bíziko zírarentzat baiño.

Aulesti, Murelagan, 1532 urtean egin zan parrokián sepulturen banaketa. Larogei etxeentzako egin ziran sepulturak. Murelaga'ko etxeak geiago ziran. Baiña ez euken bertako parrokiagazko lotuerarík. Ango etxe batzuk, batez be Malax auzokoak, Ziarrotzako Kolejiatagaz euken lotuera, Ziarrotzan eukezan euren sepulturak, etxe batzuk Kolejiata aretako borda edo "seletan" egin edo jaso ziralako. Eta sepulturagazko lotuera ez zan izaten merkea.

Ziarrotzako kolejiatakoak, euren korta baten etxea jasotzeko baímena emon eutsen baserri batekoak, luzaro ibili ziran, etxea jasotzearen menpetasunetik ezin askatuta. Ez da esana bakarrik. Lurrez Markiña eta gaur eleizaz Etxebarriako baserria dan Erretolaza deiturako etxeok, emaitz eta frutu guztien erdia, ganaduaren erdia eta gañera Larruskaín gañetik Ziarrotzara joan bear izaten ziran eleizkizu-

netara, bearrezko zan guztietan, an ofrenda eskiñiaz eta argía zainduaz. Eta etxeok an o biratu bear.

Bardín Berriatua'ko Obekola etxeok.

Era berean Etxebarriako Ansotegikoak. Ango andreak eta Mutrikuko Teresa batek, dirua eta Ansotegi burdiñolako jaubetasun batzuk eskiñi eutsezan esandako Kolejiatari bertako eleiza eskiñi eutselako euren illobia eta ondorengoena bertan euki egien. Illobi edo sepultura ori aldara nausiko eskillaren aurrean, ankakin eskillara orreik joteko eran eta Ugarte, Mezeta, Albiz eta Barroeta eta antzerako etxeak euki zituen aiñako sepultura izatekotan, eleiz ormatík lenen egiten zana.

Orígaitik Ansotegi'ko írabazietatik euken berrogetamarna marabedien errentaren zatí bana eskiñiko eutsen (erdia azken baten) eta burdiñolaren alboan egozan lurak be eskiñi eutsezan, angó langilleei agínduz emokuntza orí zaindu egiala aurrerantzean.

(Bizkaíko Aldundiko Kondaira Artxiboan, Zena-ruzako Agíríetan, XII Agírítegiko 21 zenbakízunean.)

Orrelako lotuerak ez ziran bakarrik Ziarrotzako Kolejiatarenak izaten. Bardin euki zituen eleizate edo auzo txiki askok, euren eskubide bako parrokiak, edo parroki lagungarriak, askatasunez geratu arte. Orrela ezagutzen díra Ipazter, Mendexa, Amoroto eta Gizaburuko kristau-taldeak Lekeitio'gaz euki zituen azarreak, euren parrokién nortasuna eta askatasuna lortu arte. Eta Bedia'koak Galdakanogaz eta abar asko.

Baserría ba ez da etxean geratzen. Illekín gabiltzan ezkerro, esan daígun, parrokioko sepulturetatik kanpora, erletegiataraiño be zabaltzen dala.

Gogoratu bat ilten danean, etxeok nagusía ílten danean, ze oítura zainduten dan: Erletokira joan eta erleei nagusia il dala adierazoten jakoe, parte emoten jakoe, esanaz:

Erletxoak, erletxoak,  
egizue argizaria,  
nagusía íl da to  
bear da eleizán argía.

Etxeko gauza zan orí. Etxeko sepulturako, etxeok erleen argizaria eroatea. Jakína da oraindik gure denporetan, Zenarruza, Meñaka, Kortezubi eta Berri-zen erlauntzak pañu baltzez estalduten zirala, eta tokí batzutan, nagusiaren il-kutxa erlauntzaren aurretik igaroten ba zan, erlauntzaren estalkía jaso egiten zala. Ori egin ezík uste zan edo uste izaten eben erleak be il egíngo zirala nagusíaga batera. Baserriak ba dauka baita beste zabalera bat. Igarten ez dana,



baíña etxeagaz lotua dana. Baserriak ba eukan anda bidean bere partea. Au da, anda bide inguruan ez zan lagaten akotadurik. Ori be etxearen eskubideetako bat zan.

Gure adiskíde Anes Arríndak, berak dakien zorroztasunez agertu eban etxearen garrantzia, baserriaren garrantzía, bere "Euskalerría eta Eriotza" liburuan.

Ara zati bat: Bizkaieratuta esango dot.

"Etxeak izugarritzko garrantzia dau Euskalerrian. Bere inguruko arazo eta gorabera guztiak etxearen iraupenari begira jarrita dagoz; etxea geiago ei da nagusi berbera baiño: Seme, edo alaba nagusiak, etxe osoa jasoko dau, beste seníde guztiak alboan itxíta. Etxe osoa esaten dogunean, etxeagaz batera beste guztiak artzen dauzana esan nai dogu: etxe-orde, borda, baratz, soro eta mendíak, eurekaz dagozan aberastasunak ezezik. Azkenik sepultura be bai.

Bai, sepultura be etxearen zatí inportantea da.

Izen-abizenak etxeak emoten dautsaz euskaldunari.

Nagusi edo mayorazgo ez díran senídeak beti eukiko dabe txoko bat etxean, eta bai sepulturan, au da, etxeko sepulturan. Baína etxea eta bere ízate guztiak nagusiaren izenean jarriko dira, etxeak beti osorik irauan dagian.

Etxea da lurra (eutsigarri eta oiñarri dan lurra) eta estalpea, eleiza eta sepultura, illen eta bizien arteko lokarri. Guztien alkartasuna etxeak egiten dau.

Millaka urteetan euskalduna borda eta baserrietan bizi ízan da; kaleratu danean, bere kaleko etxeak beste mendikoaren izaerak galdu dauz. Kaleko etxeak, geienetan, nagusi batenak dira eta euskalduna bizi da maíster (errenteru). Errez aldatzen díra, beieten ez dagolako sendi guztiaren jarraipenerako aterperik. Errez erosí, errez saldu. Baíña ez díra ez eliza eta ez sepultura, len baserriak ziran lez.

Ogeitamar urtetik ona sekula gertatu ez dana gertatzen ari da euskal mendíetako baserrietan eta ara zer: uztutako ainbat etxeetan erdaldunak sartzen dira, muskulluaren barruan "ermitañoak" sartzen díran lez. Etena nai dozuenok, orra etena oso osorik; kultura euskaldun batek alde egin, atzerrikoa sartzeko. Baserriak eutsi ba dautso euskereari eta euskal gunarí, euskaltasunaren muiñaren leku izanaz...

Gure etsaien garaipena ortiko elduko da errezen eta ziuuren. Baserriak bere legean irauan daben artean, andik jatxi da da kalera etenik barik euskal orrua, euskal legamia. Euskal pentsakeraren eta euskeraren gordelekua baserria ízan da gízaldietan zear. Baserriak galtzean, arda zarraren upel zarrak galtzen yakuz betíráko. Ardaurík ez da faltako, Bilbon be ez zan sekula ardaurik falta gure gerrateko unerik larrietan be, baíña ardaurik barria, "solera" rík bakoa.

Lagunak eta ardauak, zenbat eta zarrago obeagoak, esaten da. Baserriak be zenbat eta zarrago euskal kutsu geiago.

Esan dautsuedan lez, esaera orreík Arrindarenak dira.

Guazen aurrera.

"La casa solar" deitzen dautse erdaldunak gure baserriari. Au da, etxe jatorra, jatorritzko etxea.

"Kizkitza" zanak, Engrazio Aranzadi zanak liburu eder bat ídatzi eban ortaz: "La Casa solar Vasca" izen edo deituragaz.

Kízkítzak esaten eban lez, etxe jatorrean dogu euskaldunok gure abenda, gure arrazaren iturria.

Eta gure artean, oraiñarte beíntzat, naí eta orretan be gure mendietako ez díran beste aize zakar batzuk joten asi, sendiak, famíliak garantzi berezia izan dau gure arrazaren iraupen eta jarraipenean eta gizatasun orokorreko bizitzan, gure arrazaren ezaupidean.

Baserria, oraiñarte, euskal erriaren iturri izan da. Eta euskal askatasunarena. Eta euskal demokrazia be, esango genduke, baserritik sortua dala.

Ez nabíl níre pentsaera agertzen. Kizkitza'rena baiño. Eta bere orde z gogoratuko dot baita be berak esaten ebana: Euskaldunak dana euki ebela etxean, basetxean, baserrian. Eta etxe-maitasunak eta jatorritzko etxea zaintzeak danak egin zitula martzal, noble. Eta etxearen eta bere lurren zaintzeko ardurak sortu ebala gure demokrazia be, nagusi eta menpeko barik, aundiki eta erri xume barik.

Euskaldunak, etxeko buru izate utsagaitik, edo bertako seme ízateagaitik, bardiñak ziran errí agínte, aolkarítza eta zuzentzan.

Gogoratu bearreko da, Engrazio Aranzadi, "Kizkitza", kístau zintzo eta egikaría zala eta bere bizitza guztian, aberrí maitasunagaz batera, kristautasun bízí baten oiñarrítuta ezagutu zala. Bere "La Casa Solar Vasca" o Casa y tierras del apellido izeneko líburuaren sarreran, bere siniste lez, Paul deunaren esaera bat gogoratzen dau. Onela díño: Beretarren eta batez ere etxekoen ardurarík ez dauanak, barriro sinísteari uko egín dautso ta sinísgabea baiño gaiztoago da.

### Baserriaren sortzea

Zelan sortu zan baserria?

Arkeologían ez da asko sakondu bear ikasí eta jakiteko lenen gizona, lenen euskalduna, kobaetan bíziten zala. Gero ta atsegiñago eta gero ta errezago ikasten dan jakíntza da arkeologikoa, eta onetan euskaldunak maixu onak euki ízan doguz Aranzaditarretan, gaurkoei bakean ítxita lengoak bakarrík izen-

# EUSKAL-ASTEA

tatzearen, eta eurekin batean, lengoa eta gaurkoa dalako, On Jose Miel Barandiaran aitatu bear. Bizkaiak be bere jakituria ezgutuz Bizkaiko seme kutun oraintsu izentatu eta laster txalotuko dauana.

Sua eta aterpea bear ziran biziteko, eta leize edo kobaetan billatu eban gizonak aterpe ori eta esan lei kobaen erdi erdian egiten ebala berak ain bearrezko eban sua.

Koba batzuk ezagunak dira. Beste batzuk billatzeko. Billatutakoen artean ainbat dira nun dagozan jakiñarren, euren barruak ikertu edo aztertzeke daukezanak.

Egin kontu Bizkaian bertan, Abadñon asi eta Zornotzaraino alfabetaren ordenaz izenak esatearren, edo ta Markinalde, Arratia eta Karrantza aldea zearkatuaz, itxas egala be kontuan eukita, 1.637 koba zulo erroldu edo zentzatuak dirala.

Ez dogu esango danak bizileku izango ziranik, batzuk ez dauke, itxura baten beintzat, orrelako gaitasunik, baiña ezin ukatu eurentariko asko ala izango zirala.

Ortik baserrira, bide luzea dago orañdik.

Euskaldunak, lenengo eiztari izan zirala esaten da. Eta zegaitik ez eiztari eta arrantzale?

Geroago brontze aroa etorri zan. Eta orduan artzain.

Artzainak euren erako etxe bizitzak sortu zituen. Artzai-txabolak. Edo bordak. Edo, euskaldunak izen eta deituetan ugariak gara -eta, borda, korta, gorta, saroi, sarobe, saletxe, saltxe... izenak gogoan erabilí.

Zelakoak ziran bordak? Geienak zati bateko egitura euken. Baiña eurentan gordeten ziran gizonak eta abereak.

On Manuel Lekuonak, Iñaki Linazasoro'ren "Caseros de Gipuzkoa" liburuaren sarrerakoan, bereiztu egiten ditu artzaintzatik sortu ziran etxeak, eta nekazaritazatik sortutakoak. Artzaintza lenagokoa zala diño, goietan sortua; gero mendi gibeletan nekazaritza sortu zala.

Berak esaten dau antxiñako garaietan, irabazbidea basoan egoala eta gizonak, bere bizia mendian igaro bear, basoan egoalako artaldearentzako larrea, eta artaldea zalako gizonaren bizi-iturri.

Gero, erribera aldetara sortu zala nekazaritza. Origaitik berak esaten dau gure baserriak era bitakoak dirala, iturri bitakoak: batzuk artzaintzatik sortuak, eta besteak nekazaritazatik.

Onela diño berak: "Gure baserriak, batzuek-zaarrenak, bear bada- artzantzako bordaetan edo saletxeetan dute beren jatorria: beste batzuk, nekazaritzako etxeetan. Ez bait dira gauza berdiña bi iturri oiek. Artzaintza zaaragoa da bere izatez, eta artzantzako bordak goietan arkitzen dira. Nekazaritza beerrago arkitzen degu, erribera-aldean: eta, izan, geroz-

tikagoa da, ondotoz geroztikagoa, artzantzaren aldean, gure artean".

Orra, labur eta gain-gaiñez, baserriaren sortzea.

## Zelakoa da baserria?

Baserría, baserri etxea, bere egituraz, azalaren egituraz, era askotakoa dala esan bear.

Baiña ba dagoz berezitasun batzuk.

Lengo baten, bilbotar margolari baten esaten eustan, berak bizkai-erako, bizkaitar batzuk emon izan dautsen egiturako baserri zapalak, alde bietarako tellatuagaz, baiña alderdi bat, egal bat, bestea baiño askoz luzeagoa daukenak dauzela begikoen.

Ba dagoz egitura ederreko diran baserri etxeak. Atadi argitsu, arku itxurotsu, edo ta arri-oiñezko zutabe ondo landuekaz eutsiak. Zoragarriak, esango neuke nik. Eta barru aberatsekaz, batez be arlandu eta ol jator iraunkorrekaz erruki barik egiñak. Ba dagoz daukezan eraiketako orma-azur eta zur-beso eta abar, etxegin ikasien egituretako gaitasun berezia eta ukatu eziñiko praktika erakusten dabeak.

Berriz, Zaldibar, Durango aldean, ba dagoz baserri batzuk benetan ikusgarri egiten diranak kanpotik. Eta barrutik? Batez be banaketa aldetik?

Danok dakigu gaur baserriak, batzuk beintzat barriztu dirala, etxeari gaur emon nai yakon aukera guztiak emonaz. Baiña gu, jatorrasunari begira gabiltz une onetan. Baserri jator, ez bakan eta bakar, bituraz baserrian diran lako baten billa baiño.

Gaur bizi izan ba litz 99 urte eukiko zitun osaba baserritar batek, Jose Mari Albizu zanak, Anes Arrinda bere illobeari egin edo emondako baserri etxe baten ikuspegi bat agertzen dau Anes'ek. Gipuzkoako Goierri aldea deitzen dan inguruko baserrietako batena.

"Baserri normal batean, diño, kanpotik sarreran, etxe-atarian, liñarria aurkituko dogu. Zetarako liñarria?"

Ba liñarri orren gaiñean jotzen eben eunezko soiñekoak egin al izateko liñoa, eta zeregin ori, jote ori, liño-mazoekaz egiten zan.

Aurreratxoago sarrerako atea.

Atalburuan, egurrezko kurutze txiki bat josita. Erramu egunean bedeinkatutako erramuagaz egin-dako kurutza da. Gaiñera, Eguen Santuz, Jaunaren ondoan egondako kandela tanta batzuk bere gaiñera botata, eta Zapatu Santuz bedeinkatu eta etxeetara eroaten zan ur bedeinkatuagaz buztita. Kurutze ori urtero barriztu bear izaten zan Maitzeko Santa Kutz egunean. Ez zan Euskalerrian etxerik geratzen atadian kurutze ori ipini barik, ez eta soloetan Erramu egunean bedeinkatutako erramuak zabaldu barik, ez eta Doniane egunean bedeinkatutako lora txorta, trumoi bedarra barruan ebala, etxeko atadian edo leioen baten ipini barik.

Sarrerako ate onengandik kanpora ba dagoz beste ate bí: bata ukulluko atea, au da, gure inguru onetan kortako atea deitzen dana, eta bestea mandioko atea Gipuzkoan deitzen dana, guk garai edo troxako ate lez ezagutzen doguna.

Sartu lenengo kortako atetik. Ate-ertzean aku-luak eta lurrean uztarria. Ezkerretara gero beste ate bat: sukalde edo eskaratzeko atea. Sukaldearen parean, etxea aiñako luze, ikullua, korta.

Korta eta sukalde bitartean egongo dira nekazaritza edo lurgintzarako tresna eta erramintak: sega eta sega potua, igitagiak, lastoa mozteko epaia, laiak, atxurak, aizkora eta abar. Orreín ondoren ganadu janak.

Goian, lenengo etxeoiñean gordeten dira oiturazko diran etxeko laboriak: garí, indíar, arto bada eta ganaduerí emateko beste aleak.

Ezkerreko atetik sartuta sukalde daukagula esan daukagu. Aurrez-aurre, orman, sutokía. Tokí askotan, batez be beste su-motak ezagutzera eldu gareanok, beko sua esaten doguna. Surík zabaldu ez daíten an egoten dira su-burdiñak, eta barruan, lapíkoari eusteko beste su-burdín batzuk. Orma zarrean auspoa, suarí aizea emoteko, taloburdiña edo taloparea, talo-ola, burrunzia, sartaiñak eta krisaillua. Suaren atzetik, su artzeko burdiña-erdian, talo burdiña eukiteko txapaldatxo baten egoten ei da. Tximiníko kanpai inguruan pertz-oria (galdara oría) eta beste galdara eta lapíkoak, almaíza eta almaiz-eskua, kandle-rrekaz batean. Sukaldeko ormatik atea daukala etxe kanpotik labea, eta laba atakaren ondoan laba-endaia (labako pala), labatik ogiak atarateko eta sakar endaiak labako sorua garbitzeko.

Eskuma aldeko paretean dago orromaia; orman zintzilik, dindilizka, urun aulkía eta baia, uruna pasatzeko orromafaren barruan. Orrotu eta gero, orromafaren sorua garbitzeko burdiñari matarrazkía deitzen jako. (Bízkaían erresera, tokí batzutan beíntzat.) Beste orman zizaillua egoten da (jarrailekua), armario txiki bat bertan eta apaltxoetan egurrezko kollara eta sardatxoak, egurrezko txaliakin batera eguerdíko egozkaria jateko. Goitik dindilizka kaiku eta esne pertxa, baita zeziña eta urdai zati aundi bat. Suaren inguruan aulkiak.

Lo-gelak sukaldetik eukiten dau atea. Oíak, euren azpiak sokazkoak eukiten dabez eta gaiñean txurikiñezko lastaideak; goikaldean kurutza. Ondoan kutxa eta kutxa barruan kutxatílla...

Orra baserrítar jator batek emondako bere etxe eta beste askoren etxeetako barru-aldeko íkuspegi arin bat.

### Zelan duaz gaur baserriak?

Nik, baserriei buruzko liburu batzuek egitean, baserrien egoerá buruz artutako gain-gaiñeko oar ba-

tzuk esan neíkez. Bereun urtetik ona igarten dan aldakuntza zenbatekoa dan azaldu.

Aldakuntzaren zegaítiak, askotan, egon dira, bestetan ez, baiña gure gizaldiko piñuboladak euki ízan dau bere eragiña, eta ez gitxi, len basoak erabilten Beste batzutan kaleko bízbiderako erreztasunak; erosotasuna bestetan, mendiko bakartadea itxí eta bizítzako urteei beste bizi-bide erabide bat emon nairík.

Danok daukagu bizi-bide egoki baten eskubídea.

Utzituko ete ziran baserriak, sasoiz aintzat artu ízan balíra, euren bizítzarako neke ta sailtasuna garbí aztertuaz, etxeetarako bide eta laguntzen eskíntza eta emoteak sasoiz emonak gertatu ba líra? Edo ta jaubetasunerako aukera garaíz eskiñí eta lagundu, erreztasun laguntzak eskiñiaz?

Itxi laguntza astunak eta goazen ia eguneroko agerbide txikíetara.

Okurrídu yakon sekula udaletxe baterí, erríko merkatura gauza andi lez astokada bat frutu edo ortuari ekarten eben baserriarrei, besterík ezean merkaturako jarrilekoa doan lagaterík, edo ta euren salgaiak agirían eukíteko artzen eben lurreko metrotxoa ez kobratzerik? Jakíñík gaiñera eguna argítzen asi orduko etxetik urten, iñoiz ordu bí edo gefagoko bidean, eta etxetik ekarrítako frutuen orde, etxerako eroan bear zituen ordeko janari edo jantzíak ordaintzeko aiña ez ebela batzen, eta gaiñera merkaturako osteran egiten zituen orduak ibilí-truke egin bear izaten zituela?

Luze joango gíñateke utsunak bíllatzen. Sakonak batzuk, ariñak besteak, baiña sarri gauza arin bateko ítxura ítxura obeagoa emoten dau bere egitadan, alako sakon batek baiño.

Edozetara frutua or dago.

Eta labur-labur esandako datu batzutatik atara al izango dozue gaur baserriak ze bide daruan.

Amoroto: 1.796 urteko erroltzean, zentzoan, 62 baserri-etxe egozan.

Gaur, ia berreun urte geroago, ogeitamar gítxiago. 32 geratzen dira.

Berriatu: 1.796 urtean 128 baserri-etxe erroltzen ziran. Itxi edo sarratu diranak 39 díra. Larogé eta berderatzi geldítu.

Etxebarría: 1.796 urtean 137 baserri. Azken urteetan 39 sarratu eta amar orma utsetan geratu díra. Beraz 88 geratu.

Gizaburuaga: 1.796 urtean 38 baserri egozan. Amar uztu díra, beraz ogei ta zortzi geratu.

Ispaster: 1.796 urtean 136 baserri ezagutu ziran. Azken urteetan 32 uztu díra. Beraz 104 geratu.

# EUSKAL-ASTEIA

Mendeja: Len 48 baserri egozan, azken urteetan 6 galdu, beraz 42 geratu.

Aulestín, gizaldia ezkerro, baserriak erosteko garra ezagutu zan. Narea auzoan, esate baterako, gizaldi onetan zear, baserria sendotzeko garra ezagutu izan da batzutan.

Ara agiriko bat: Auzo orretan 1.900 urtean, amazortzi baserritik zortzi ziran jaubeenak eta beste amarretan errenteruarak bizi ziran. Gaur emeretzí etxetan bizi dira etxe jaube díranak. Baiña Aulestin be igarten da baserriak uztu edo izteko joera. Wi-Iiteirglass'en "Oportunidad y Exodo Rural en dos aldeas vascas" lĩburuan esaten denez, 1924 urtetik eta 1966 bitartean 11 baserri uztu ziran. Baiña gero, beste lau urtetan, zortzi.

Ain zuzen be pare bat illabete barru, Aulesti'ri buruzko liburu bat atarateko asmotan, Aulesti'ren azterketa bat egiten díardut.

1799 eta 1810 urtetako etxe bakoitzaren agerpenak eskuetan daukadaz. Sinistuko zenduke Aulestiko baserriak geienak, batzutan jaubeak eta bestetan errenteruarak eurak be, aĩnbat diru zor ebela zentzotetan?

Labur izateko seĩ-zazpĩ kasu agertuko dodaz eta sailean artuta, aukeratu barik.

Ara:

Ibarroa Andia.—Etxe jaubea. 1799 urtean 330 dukat eukazan zorretan eta 4 1/2 anega gari emoten utsazan Mortaraz'eko Markesari, baso batzuk erabiltetaren orde.

1810 urtean, zor geĩago eukan, oraingotan 573 dukat.

Iturrĩtza.—Etxe jaubea. 1799 urtean 1.500 dukat eukazan zentzotan zorretan eta 3 1/4 anega gari emoten eutsazan Zenarruza'ko Kolejiatari.

1.810 urtean zor geĩago eukan: 2.000 dukat.

Koba.—(Errenterua). 1.799 urtean 974 dukat eukazan zorretan eta 2 1/4 anega gari emoten eutsazan Zenarruzari. 1.810 urtean zor geĩago eukan: 1.200 dukat.

Olariaga.—Jaubea. 1.790 urtean 1.627 dukat zorretan.

1.810 urtean 2.140. Beraz geĩago.

Narea Etxebarrĩ.—Errenterua. —1.799 urtean 1.400 dukat zor.

1.810 urtean 1.200. Beraz 200 dukat gitxĩago.

Narea Goĩti.—Errenterua.—1.799 urtean 1.100 dukat eukazan zorretan.

1.810 urtean 1.000. 100 dukat gitxiago.

Otatza andia.—Jaubea.—1.799 urtean ez eukan zorrik.

1.810 urtean, 1.627 dukat.

Erriak berak, udaletxeak, 87.098 errial zor zitun.

Kontuan eukĩ erriak ez eukala beste sarrerarik ikatz, gaztaĩña, aritz eta arta orbelen edo orriĩn sarrera, eta taberna eta agurdientearena besterik.

Eta mendiak saldu bearra euki eban. Nai eta legeko gorabera edo bildurrakaitik, saldu ziran men-dien legeztatzea gure gĩzaldĩfarte egin ez.

Baserri egoki bat izateko, amar hektarea beintza bear dauzala esaten da. Murelagan baserriak onetara banatzen dira:

Solua baserriak, 32 hektarea pasautxu daukaz. Baiña euretatiĩk 29 mendilurrak díra.

Barbaiola baserriak, ia 25 hektarea ta erdi, baiña emen be ogeita bi basoak dira. Eta baserria bera utsĩk dago. Alboko etxetxo baten bizi díra errenteruarak.

Bost baserri dagoz 15 tik 20 hektarea bitartekoak.

Amasei 10'tik 15 bitartekoak.

Ogei to iru, 5 tik 10 era bitartekoak.

Lau, bost hektareara eltzen ez diranak.

Ikusten denez, Aulestin erdibitu egiten da baserriĩn neurri kontua.

Gai ontaz, zeaztasun geĩagoz, ainbat konparaketa egin leitekez, baiña nik uste dot gure itzaldiaren neurriara erdu gareala.

Sepulturetaz berba egitean zerbaĩ esan dot, etxe batzuk Zenarruzako fraile edo Kolejiatagaz euken lotuera jakin eragĩnez. Ogeĩ ta bi etxe izan ziran batera edo bestera fraile-areikin menpekotasuna eukenak.

Beste amaseĩ etxek, nai eta batzuk jaubetasuna euren euki, mendiekaĩtik edo baso erabĩlteagaĩtik, Mortaraz'eko Markesari garitan egiten eutsezan ordainketak.

Gaur Aulestĩ 700 bizilagun inguruan dabil eta 185 díra 60 urtekoak.

Eta onetan amaĩtuko dogu gaurko nire lantxuau, baiña ez gaur ainbeste kezka eta ardura sartzen dauan baserriĩn problema bat gogoratu barik. Baserriĩn uztutzeari buruz.

Baserria galtzen dua. Jolas toki edo aste buruetako atsedem leku biurtuko da, edo beste antzeko zerbaĩtetarako, baiña baserri izaterik barik: Egia izango ete da olerkariak díñoa?

Gau illunean sartzen zait gogo,  
 gau illunean sartuta Euskalerrria...  
 Tunel beltzetik irterakoan  
 ezagutuko ote degu gure Errria?  
 Basoetako euskal umeak  
 etxerik kanpo  
 sekulako...  
 Itzik gabeko errria  
 izango ote geran laister,  
 bildur naiz bildur.

Euskeraren gorde-leku muiñean  
 sitsa sartu da  
 erratsaldean...  
 Sitsak jango du euskal aria  
 erdalerrri bihurturik  
 Euskalerrria.  
 11-kanpaiak jo ote digun  
 bildur naiz bildur.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

**LIBURUAK**

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «EUSKERA-ZALEAK» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º  
 Teléfono 423 53 22  
 B I L B A O - 1

---

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de «EUSKERAZALEAK».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º  
 Teléfono 423 53 22  
 B I L B A O - 1

Nora Zoaz .....	600	laurteko
Giza Soñá .....	800	»
Iniciación al Euskera	800	»
Irakurgai errezipolitak I .....	200	»
(Zenbat Urte)		
Irakurgai errezipolitak II .....	200	»
(David Copperfield)		
Aurtxoá II .....	100	»
Eginkizunak I .....	100	»
Eginkizunak II .....	100	»
Eginkizunak III .....	100	»
Euskal Irakasbide laburra .....	800	»
(Gramátika X. Peña)		
Diccionario Ikas .....	900	»
Ipuñak .....	800	»
Ipuñak .....	800	»

## (1: SARIA)

Bustinzuriko errotan asto zar, argal, belarri andi bat bizi zan. Fontso eukan izena.

Amaikatxo joan-etorri egin ebazan, asto giza-gaixoak, urun zakuak lepoan baserrietara. Etxe aurrera eltzen zanean Fontso arrantza egiten eban, eta an etorten jakozan etxe-andrak astoari ondo esaten, eta milla legunkeri egiten. Orduan, bai, Fontso pozik bizi zala!

Baiña, orain Fontso zartu egin da, eta ulea lastu jako, indarrak murriztu, begiak ilundu eta azurrak gogortu... Eta gaur ez dago baserrietan andrarik Fontso asto zarrak gogoratzen danik. An dago Bustinzuriko kortan ilunpetan bakarrik, bazterturik, barruko gosea ezin aserik, bizitzeko bat ere poz barik.

Baiña, Fontso astoa danez, bere belarri andiekaz, filosofo pentsalari sakona da, eta asi da pentsatzen:

"Zer dala-ta etorri naz ni ondamedi oneta-raiño?"

Nor da nire zoritxar guztien erruduna?"

Eta pentsa ala pentsa, garbi ikusi eban, Erromaldo errotaria, Bustinzuriko'ko ugazaba, zala bere zoritxarraren errudun bakarra. "Bai, ainteste urtetan aren menpean bizi, uda eta negu goizetik gauera iherditan arentzat Ian egin, bizitzako urterik ederrenak ari laguntzeko emon, eta orain zar egin nazanean, trapu zikin baten antzera, ez zartzaroko jubilaziñorik, ezta beste edozelango laguntza barik, "or konpon" esan eta bazterrera bota, eta emen korta zar onetan usteltzen itxi? Ez orixe!!!

Zer-edo-zer egin bear dot injustizia au zuzentzeko, "pentsatu eban, arrazoiz, Fontso asto filosofo, belarri andiak.

Eta errotako atera joan, eta Fontso txakurrari esan eutsan: "Zer egiten dok or, txakur kaiku andi orrek, esklabo baten antzera kate astun orregaz lo-

tuta? Neuk esandakoa egiten ba'dok, samako kate lodi ori apurtu, eta azke-libre izango az"...

Joan zan Fontso txarritokira, eta an aurkitu eban Kurrin txarri alperra, lasto gainean etzunda, karranka, erdi lotan... Itxartu eta esan eutsan: "Kurrin, txarri alpeer, lodiori, zu bai nasai bizi zarala ugazabak janari gozoa asetu arte emoten deusulako, baiña ez egizu pentsatu ori maite zaitulako egiten deusunik".

Eta Kurrin txarriak: "zergatik, bada?"

Eta Fontso astoak: "Samartiñetan aitzo zorrota samatik sartzen deusueanean jakingo dozu ori. Orduan, bai, zure kurrinka eta irrintziak alpeirik izango dirala! Zure aragi koipetsuaz egindako lukainkak errotako sukaldean dingilizka bai polito emongo dabela!".

Gero joan zan Fontso oillategiko oillar eta oillongana, eta kortako zezen eta beiengana, eta sukaldeko katuarengana, eta kaiolako txoriarengana, eta guztiai Erromaldo, errotako ugazabaren aurka "greba orokorra" egin bear zala buruan sartu eutsen.

Urrengo egunean joan zan Erromaldo kortara, eta beiak esnerik emon ez, eta errotariak esne barik ezin gozaldtu.

Joan zan oillategira, eta oilloak arrautzarik egin ez, eta amaiketako janalditxo gozoa egiteko Erromaldok arrautzarik ez.

Joan zan sukaldera, eta katuak saguai oporrak emon, eta saguak Erromaldori gaztaia jan.

Eta ateko txakurrak, gauaz lapurrak etorrita, ausirik egin ez, eta lapurrak errotatik urun zaku ederrenak eroan.

Kaiolako txoriak be lengo abesti politikak ixildu ebazan, eta Bustinzuriko errotak, len ain alaia zanak, gero illerria zala emoten eban.

Eta Erromaldo errotariak, abere guztiak bere aurka jarri zirala ikusirik, Bustinzuriko errotatik alde egin eban...

Eta abereak egin ziran ango jaun eta jabe...

Ainbeste urtetan Bustinzuriko abereak amestu eben ASKATASUNA azkenean etorri jaken.

Txakurrak samako kate lodia apurtu eban.  
Txoriak kaiola-espexeko atea zabaldu eban  
Zezenak adarka kortako atea bota eban.

Oillategiko oillar eta oilloak "kakaraka" kantuan zelai zabalera egoak astinduz pozik urten ziran.

Eta abere guztiak euren morroi-kateak betiko apurtu ebezalako, pozaren pozez zoraturik, dea-darka asi ziran:

Gora, Fontso, asto iraultzaillea!!!

Gora, askatasuna!!!

Gora, abereen iraultza!!!

Eta askatasunaren egun pozgarria ospatzeko abere guztiak alkartuta jai andi eder bat egin eben.

Astoa asi zan flauta jotzen, txoria abesten, txarriak biboliñarekin lagunduz... Eta oillarrak eta oilloak, txakurrak eta katuak, zezenak eta beiak, irri eta barre, dantzan eta triskan, egun guztia emon eben.

Askatasun egunean eguzkia argiagoa, ura garbiagoa, aixea fiñagoa, eta mundu guztia alaiagoa eta maitagarriagoa zan.

Jaia amaitu zanean Fontso astoak "Pinpin" oillarrari agindu au emon eutsan: "igon zaitez zelai erdiko intxaur zugatzera, eta abere guztiak entzuteko eran, dei au aldarrikatu egizu:

"Bustinzuriko abereok, entzun:

biar goizean danok, iñork utsik egin barik,  
ementxe zelai onetan egon bearko dozue"

"Nik, Fontso, agintzen dot".

Bildu ziran, bada, urrengo egunean oillarra eta oilloak, txakurra eta katuak, beiak eta zezena, txarria eta txoria errota aurreko zelaietan, eta danak bedartzan jarri ziranean, onan asi zan Fontso berba egiten:

"Jaun andreok:

Oraintsu arte, gu abereok, gizonaren menpean esklabo lez zapalduta, baztertuta, apurtuta, txikituta bizi izan gara. Baiña emendik aurrera askatasun eguzki beroak argi egingo deusku laiño bako zero zabal, urdiñean. Orain, neure lan, izerdi eta nekeai eskerrak, zuok zuen buruen jaun eta jabe zarie. Abereen historia guztian zear ezagutu dan iraultzarik arrigarriena egiteko gauza izan garanok, orain mundu guztian aurrean argi erakutsi bear dogu, geu baka-rik be naiko garala errotako lanak, arazoak, eta eginbearrak, gatxenak izanda be, ondo, egoki, zuzen eta zintzo aurrera eroateko. Orretarako oraintxe bertan zuetako bakoxtari eguneroko lana izentatuko deusat:

Zuk, katu, sukalde epelean orain arte legez alperkerian bizi barik, emendik aurrera, guretzat eguneroko bazkaria atondu bearko dozu.

Zuk, txarri lodi, nagi, alper-ontzi orrek, gari zakuak lepoan artu, eta errotarran eio bearko dozuz.

Zuk, txakur, emendik aurrera ausi gitxiago eta lan geiago egin bearko dozu. Zuk, txarriak eiotako uruna eralgi bearko dozu".

Eta onantxe banan-banan Fontso abere bakoxtari bere lana emon eutsan: Beiak burdian artuta urun zakuak baserrietara eroango ebezan.

Zezenak bere adar zorrotzakaz errotea lapurretatik zainduko eban.

Oilloek goiz-goizetik, egunak argitu orduko, abereak itxartu eta lanean asteko, kukurruku indartsu joko eban.

Eta txoriak? Txoria Fontso diktadore barriaren salatari (polizi-sekreta) izango zan, eta alde batetik bestera egaz zoli ibiliko zan, abereren bat alperkerian ikusi ezkerok, Fontso bereala salatzeok.

Eta Fontso berak zer lan artuko eban? "Ni, iraultzaren asmatzaille, sortzaille eta egille nagan ezkerok, ni zuen zuzendari, buruzagi, epaille eta nagusi izango naz", gogor adierazi eban Fontso.

# IPUIN-SARIKETA

Asi ziran, bada, lanean errotako abereak nagusi barriaren menpean, baiña, katuak ez ekian bazkaria atontzen,

txarriak ez ekian errotarria erabilten,  
txakurrak ez ekian uruna eralgiten,

beiek ez ekien uruna zein baserritara eroan bear zan,

oilloek ez ekien baratza lantzen...

Eta errotako ekonomiak, lurra jota, porrot egin eban. Dana ondatu zan.

Abereak jateko barik gosez, eta oberako itxaropen barik, zoritxarrak jota, Fontso jauntxoaren aurka euren asarrea agertzeko, errotako zelaian manifestaldi bat egitea asmatu eban.

Bera, jauntxokeriak!!!

Gora, erriaren askatasuna!!!

Kanpora, Fontso diktadorea!!!

Ez zan zelaian beste deadarrik entzuten.

Abereen asarreak baretu, eta bakeak egiteko asmoz, Fontso zelai erdian agertu zan; eta orduan astoari,

txakurrak orkatillatik aginka egin eutsan,

beiak adarka eraso eutsan,

katuak erpaka musturretik eldu eutsan,

oillarrak egaz belarrietara igonda, mokoka ekin eutsan,

eta zezenak, adarrak zorrozuta, talkada bategaz, Fontso diktadorea, aizetan ankaz gora zelaitik kanpora bota eban.

Abereen amorrua epeldu zanean, bei begi andia, onan asi jaken bere lagunai berba egiten:

"Jaun andreok:

Asarrea gaiñezka daukagula, ez dagigun zentzun ona galdu.

Gure errotan lanik ez ba'dago, ez daukagu irabazirik,

eta irabazirik ez ba'dago goseak ilgo gaitu.

Gure artean nok daki errotarria erabilten? Iñok ez.

Gure artean nok daki garia eioten? Iñok ez.

Gure artean nok daki uruna eralgiten? Iñok ez.

Ekarri dagigun ostera be gure artera Erromaldo, ez jauntxo izateko, baiña bai errotako lanak zelan egin gure erakusteko.

Iraultza ondo egiña eta bearrezkoa zan, baiña gure iraultzak aurrera egin bear ba'dau, danon indarrak alkartu dagiguzan; gureak eta Erromaldorenak, abereenak eta gizonenak, baita Fontsoarenak be, damuturik bere jauntxokeriak baztertzen ba'ditu.

Danon indarrak alkartuta gure iraultzak irabaziko dau.

Gure indarrak zatituta danok galduko dogu."

Eta zelaiko abere guztiak bei begi andiaren asmoak onartuz deadarka erantzun eban:

**GORA, ASKATASUN ETA ALKARTASUNEAN EGINDAKO IRAULTZA!!!**

**GOIKOETXEA'tar IÑAKI**  
Europa'ko diktaduren historia argitzeko, asmatu dot ipuin au.



## MANTEROLA'tax GABIREL (JAIÓ ZANETIK 100 URTE)

### EZAGUTU NEBAN

Naikoa lenagotik ezagutzen neban nik Gabirel Manterola, baiña 1970'ean Zeanuri bere erríra joan nintzanean beragaz artu-emon gozoak eta zintzoak izateko aukerea ízan neban. Gauza pozgarria ízan zan nítzat, baí bizítzan eta bai eriotzan bere adiskide izatea. Gogoan daukadaz batez be bere azkenengo illeak eta egunak eta bere azkenengo jaunartzeak.

Ni bertara joan nítzan ezkeró, Gabirel zar-sarí-dun zan eta bere eleizlana autor-lekukoa ta goizeko mezea esatea izaten zan. Azkenerantza neu ízaten nakion laguntzaille mezea esateko be.

Baiña ez uste izan zar-sari orregaz gure Gabirel geldí egoten zanik. Ez. Ibillaldi labur batzuk egiteko astía ateraten eban, baiña Gabírel' en orduak eta egunak líburu artean írakurten eta batez be ídazten ízaten zírán. Liburu-artean egoanean, lagun-artean egoan.

### ZELAKOA ZAN

Ontasunez beteríko gizona eta oso baiezkorra zan.

Bakoítzak daukagu geure izaerea, berezkoa eta geure eziketa-alegiñaz lortu dogun lakoa. Eta Gabirel'ek be berea eukan: Ontasunez beterikoa, aingeruak lakoa ta txarkeri bakoa, laguntzaillea, ondasun-zalekeri-bakoa, arteza, errízalea, bear ba'da Jaungoiko-zalea zalako, eta abadea. Oraínsu irakurri al izan doguz Etxebarria'tar Jon Gotzon'ek argitaraten dauan EXCERPTA aldízkarían Gabirel'ek In-glaterra'tik ídatzitako eskutitz batzuk, benetan abertzaletasun jatorra daríoen idazkiak.

### Eungarren urtea

Il onen amazpian beteten ebazan bere urteak Gabirel'ek eta bizi izan ba'litz aurten beteko eban eungarren urtea. Zar egín zan, baiña ez zan eldu bere adiskide dan Jos Migel Barandiaran lez, eungarren urtera. Orregaitik egiten jako omenaldía aurten bere errian, Zeanurí'n. Ona emen Egítaraua ta zertzeldak:

### EUSKERAZAINTZA/EUSKERAZALEAK

MANTEROLA ta URIGOITIA'tar Gabirel'eri OMENALDIA  
(Jaíotzatik 100n.urtean)  
Zeanurí'ko udalaren laguntzaz.

### EGITARAUA

11'tan: Mezea.

12'etan: Jakintza-ekíñaldía, Udaletxean:

- Manterola'tar Gabirel bere sendian (Manterola'tar Ander'ek).
- Manterola'tar Gabirel idazlea (Onaíndia'tar Santí aítak).
- Manterola'tar Gabírel Eíbar'en (Zelaia'tar Pedro'k).
- Manterola'tar Gabirel umeakaz erbestean (Belaustegigoitia'tar Maitena'k).

13'etan: Dantza-Taldearen ekiñaldia.

13,30'ean: Manterola'tar Gabírel'en etxean oroi-ikurra ipintea.

14'etan: Erri-giroko bazkaria Zulaibar Lan-Ikastegian.

(Bazkarira joan naí dabenak martiaren 10'a baiño lenago txartela artu bearko dabe Zeanuri'ko Udaletxean edo Sagarna jatetxean. Ordaíntzekoa 2.500 pezeta ízango da. Omenaldian bertsolaríen eta txistuleríen ekiñaldíak izango díra.

EUSKERAZALEAK/EUSKERAZAINTZA

OLAZAR'tar MARTIN'ek

## ECUADOR'TIK (Kitxua indioakin bakarrik)

Kotakatxi mendi garaia betiko edurrez zuri dago, eta onen azpian indio talde bat bizi da.

Eskola eleiza biurtuko da. Ango jendea aurpegiz baltzezka da, txikiak gorputzez, aurpegi borobilla eta begi txikiak. Gizonak ule luzeak sorbaldarainokoak, buruan zapi zuria, eta oinetan abarketa antzekoak.

Arratsaldeko seiretan eldu nintzan errira. Agur egitera joan nintzan alkateari, eta onek beste barik esan eustan: Aitatxo, emen erri onetan ez gara danok erlijio batekoak. Emengo batzuk "Bajai" erlijioak dira. Argi eta garbi esan eustan.

"Bajai" erlijioa zer da?

Persiatik etorritakoa da. Emen, Ibarra deritzon errian, irrati emisora bat dauke, eta eguneroko bi aldiz berba egiten dabe. Emengo batzuk entzuten dabe. "Bajai" uzkuaren mamia da: Jaungoikoak gauza guztiak egin dauzala, Jaungoikoa guztion aita dala, Gizon guztiak bakan gudarik egin barik bizi bear dogula, eta abar. Ez dabe kristiñauen aurka ezer esaten, baina Jesukristo aitatu be ez. "Bajai" ikasbidea musika bigun eta atseginez lagundurik zabaltzen dabe. Izlarien abotsak be bigunak dira eta astiro astiro berba egiten dabe...

Alkateak bere etxera eroan nindun, eta bere emazteak arroza maizenarekin nastuta emon eustan.

Ango indioak erdera gitxi dakie, eta nik kitxua gitxi. Orregatik abesti asko egiten genduan, eta gogoz egin be. Kantu politak benetan eta biozkoiak. Onek kemena emon eustan.

Nire gela zementoz egindako etxe batean egoan, ate orde estera bat, eta leio orde beste bat. Otza alde guztietatik sartzen zan. Nik bu-

rusi-manta bi neukazan, izera barik, baina dana garbi eta txukun egoan. Ondo lo egin neban.

Goizean ontzi andi bat urez beteta neukan aurpegia garbitzeko. Kafe beroa artu, eta otoitz egin ondoren lanean asi nintzan.

Umeekin asi nintzan. Amarretan Eukaristia, abestiak ikasi eta abestu, dantza, eta txalo egin. Au izan zan nire lenengo katekesia.

Gero etxeak ikustera bedeinkatzeko. Ango etxeetan ez dago aulkirik, ezta mairik. Esterak lurrean zabaldu eta onein gaiñean jan, jolas, lan eta lo egiten dabe.

Jendeak pozik eta maitasunez artzen nabe euren etxeetan, otoitz bat esan, etxea bedeinkatu eta pozik geratzen dira.

Emon nebazan amabost eguneko misiñoak besteen antzekoak izan ziran. Azken egunean sei metroko gurutze bat eregi genduan "gurutze bidea" eginez.

Azken egunean kitxua ekien lekaike bi etorri ziran, eta olan dana ondo amaitu zan. Lenago etorri baziran obeto, baina ezin dana, ezin da.

Kotakatxi'ko lana amaituta irureun bei dituan Santa Isabel etxalde edo aziendara joan nintzan. Ango esnea Caianbe'ko gaztai lantegira saltzen dabe. Euskaristia etxe aurrean ospatu genduan, eta askok jaunartu eben. Gero etxeko andreak bere seme-alabak ezitzen dituan ikastetxera be eroan nindun. Ango nagusia kristiñau zintzoa zan, eta oso pozik artu nindun. Ikasleai itzalditxo bat egin neutsen, eta gero Eukaristia landan aize zabalean ospatu genduan. Danak oso zintzo eta begirune andiz egon ziran.

JOSE MARI BOLLEGI. S. J.

## II ESALDIEN JATORTASUNA II

Aspaldion nabil esan naian norbaiti (edo norbaitzuri) geruago ta "EZ ' geiago entzuten eta idazten dalako "Gerundio" aldakorrean eta abar. "AZ = ET ' idatzi ta irakurriaz, esan naia ukatzen clan euskera gatxa leporatzen dauskuelako NAI TA NAI EZ.

Ekiñen ekiñagaz, esanak esanaz = esanak esanez  
 gauzak egiñaz = gauzak egiñez  
 on egiñaz = on egiñez  
 erakutsi naian = erakutsi naiez  
 eskerrak emon, eskerrak emoteko = eskerrak  
 orretara egiñaz, zuzentasunagaz = orretara egiñez zuzenta  
 sunez  
 ikusi naian, ikusi nairik = ikusi naiez  
 auzi batera garoiaz = auzi batera garoez

Zeintzuk dira esaldi egokiak eta esaldi egoki ezak?  
 goizian goizetik = goiz goizez  
 askenian naigabeaz = askenez naigabez  
 izena entzunaz = izena entzunez  
 bildurragaitik = bildurrez

Nun dago jatortasuna eta zentzuna euskalkiotan?  
 aztertu egizu = azter ezazu  
 egin dagiozuela = egin dezaiozuela  
 siñistu eidazue = sineztu ezai dazue  
 ez dago ezer eziñik = ez bai da ezer eziñik  
 erregutu egizu = erregutu ezazu  
 maite egizu = maite ezazu  
 dagikezu itzakín eta egiñakin = dezakezu itzez eta egitez  
 oba litzake lauki bategaz = obe litzake kuadro batez  
 ziur egonaz eun urtían, eun urtetan = zigur egonez eun urtez

Nortzuri agertu eretxiak, esakera onek atarako ba-dabe ondoren jatorrik? Len Begoña'tik eguastenetakoa Mezatan entzuten zan esanaz eta eskerrak emonaz

Baita Elorrio'tik Balentin deunaren lenengo egunian, obispo Jaunak esanaz eta eskerrak emonaz emon eban Meza.

Zorionak eta eskerrik asko emon nai neuskioe abadeai leen lez, eskerrak emonaz esana Meza emoten daben guztiai.

### BITORI MENDIA

**Erantzun batzuk:** Ez dot uste gauza ziurrik dagoanik arlo oneitan. Dana dala neure eritxi batzuk agertuko dautsudaz: **-az** erabilli, egitekoa eginda geratzen danean: "Agur esanaz, isildu egin zan". **-ez**, ostera, egiten jarraitzen danean: "Agur egiñez joan zan bere itxas-ontzian".

**-gaz** erabilli norkia edo biziduna danean: "Senarragaz etorri zan", "txakurragaz joan zan eizara". **-az** erabilli bizibakoa danean: "Mailluaz jo eban arria".

**Egizu/ezazu**, biak dira jatorrak, bata Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bestea.

"Auzi batera garoaz" batek, "Auzi batera garoez" arerio guztiak.

"Goizean goizetik" noz asita esan nai dau, "goizean goizez" ostera iraupena da, goizaren joanean.

Dana dala, pozik irakurriko gendukez, idazteko ain bearrezkoak diran arau batzuk **-az** eta **-ez** onei buruz. Esku-artean daukagu Ambrosio Zatarain'en idaz-lan argi bat. Meza-liburuan agertzen diranean olako esaldiak noz dagozen zuzen eta noz ez, agertzen dau EUSKERA aldizkarian argitaratuko idaz-lan orrek. Ez dago danean emen esan dodanaz batera.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.